

bookazine



...eta datorren
urtean,
gehiago



2005eko egutegia



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behe

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbiet

Itziar Garate

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,
Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,
Haize Galarraga, Xabier Aranguren,
Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,
Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,
Izaga Garzia, Beñat Fernandez de
Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon
Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur
Taldea, Ander Hormazuri, Aitor
Manterola, Imanol Garate,
Joseba Esna, Belen Golmaio

Azaleko marrazkia

Sinéad Bux

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN


1136-8594

Baleike ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	9
elkarrizketa aitziber igoa eta haritz romanelli	10
erreportaia istripu baten oroitzapena	14
musika trastorno mental	18
orain hamar urte	20
dietetika	21
gure zumai zarra donato bidasoro iraundegi	22
kirolak	26
bost urte, bizitza osoa euskara sasoian egitasmoa	30
kultura	30
bertsoak zine forum	34
agenda	34



elkarrizketa
aitziber igoa
eta **haritz romanelli**

“Askotan izerdi patsetan
esnatzen naiz, oraindik
han egongo banintz
bezala.”

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

kutxa
gizarte ekintza



Noizko urak garbi, garden?

Narrondo ibaiko urak zikin eta nahasi jaitsi dira Txikiertitit behera sarriegi azkenaldi honetan. Oso lotsagabe jokatu omen dute, gainera, isurketen arduradunek. Urak betirako garbituko ote? Noizko urak garden?

Pixka bat gorago, Arroa Behea, etengabeko aldaketetan murgilduta. Antza denez, Arroan etxebizitza berriak egiteko proiektuaren ur geldiak berriro mugitzen hasi dira. Badirudi Zumaiaiko Udalaren aldetik jarritako oztopoak neurri batean gainditzen ari direla. Hainbesteko kaltea eragiten al dio Zumaiairi auzo txiki baten hazkundera? Noiz jokatuko dugu garbi?

Pixka bat gorago, Zestoa. Erreferenduma egin berria. Kontzientzia ekologista indartzeaz gain, emaitza bikain bat: herri kontsultaren kultura gizarteratzea. Botoen emaitza, alde aurretik jakina: K.O. tekniko. Denok gara ekologista gure etxe ondoan errausketa planta jarri nahi digutenean. Zortzi urte inguru daramatzagu etxean konposta egiten, birziklatutako gauzak erabiltzen. Urteak eman nituen birziklapenetik bizitzen, eta izugarri maite dut gauza zaharrei bizitza berria ematea, birziklatzea. Baina zapore gazi-gozoa utzi dit kontu honek. Gogo onez hartuko al dugu gure etxe ondoan zaborteja jartzea? Ez dut

errausketa maite. Ez dut errazkeria maite.

Pixka bat urrutiago, Donostia. Belodromoko eskaintzak urak garbitu eta garden-tzen lagunduko lukeela sinetsita nengoen, eta oraindik sinistu nahiko nuke. Eskaintza ederra, itxuraz, urak garden-tzen joateko. Baina laster etorri ziren erantzunak: batetik, atxilotetak, jipoiak, tratu txarrak... Sua berpiztu nahian? Baretzen ari dena zirikatze? Boteretsuei ez zaie distentsioa interesatzen. Ez die etekinik ematen... Bestetik, "gure mutilek" ere erantzun dute, eta ez urak garbitzen lagunduz, suari su ematen baizik. Noizko urak garbi?

Pixka bat urrutiago: Finlandia. Gabonetan hara goaz. Paraje hotz haietan, paisaia bakarti eta elurtu haietan, saunaren berotasuna nagusi. Elur garbiaren gardentasunaz gain, saunako lurrin garbiaz gozatuko dugu. Hotzari aurre egiteko, suaren berotasuna. Ur nahasiak garbitzeko, gardentasuna.



Joseba Ossa

KAIKO ➡ **UDALETXETIK JARDUERA LIZENTZIA BERRITZEKO ABISUA JASO DET TA JAKIN NAHI NUEN IA POLIKIROLEDGIKO PERSONAL-TRAINNERRAK SUPEREROEI EGIN BEHARREKO PSIKOTEKNIKOA GAUR EGUNERATUA DUEN AIA ERE JARDUERAN KAPA EZ DET SARTUKO, ZE EZ DU ISPEZIOA PASA ETA HEGAZKO ARIKETAK EZIN DITUT EIN. TA HOLA BA LURREKO SUPEREROI IZATEKO...**



AH. ATZO ISTRIPU TXIKI BAT IZANUN TA PRESA PIXKABAT DAKAT... BONO FAMILIARRA BA AL DAO?.



© BALEIKERIKOMIKIA 2004 AZAROA

Badator Olentzero!

Bada kontua ta komerixa; "gizonak" ez omen dia, ba, konforme. Dana beaxentzat nahi diñe, beti bezela; beaxek txun inportantiak, beaxek ta beaxen mozkor kontuak. Ta beste batenbatek zeoze esan nahi dunian, protesta! Ba, niatik in dezatela near, in dezatela near ta protesta, gosetzen dianian etorriko dia ta etxea.

– Neska, hauekin noa? –esate zitxian Madalenak plazan– Laiste montauko ñe alardia martxa hontan!

– Alardia? Ta zeñek ingo zizkine uniformiak? Damianek behintzat buzua eraman biharko din, ez behintzat nik indako erro-paik.

– Alardia montatzeko denboaik e ba al zikane ba? Hamaiketakua ez darian txikiteua den, ta bestela txalupa arreglatzia, etxeako behintzat ez diñe denpoik inoiz, ta alardia prepaatzeko ez denboaik ezta baloreik e! –berriz e Madalenak.

– Gure Joxemarik behintzat etxeko zerralla aldatuta bilatuko din ditxosozko alardia aiatu re iten dadin –Genobebak.

Majina emakume etorri zaiten animuak ematea, arrazoi detela esanez ta ez atzea iteko erregutuz. Ta halaxe erabaki dinat, ba, aurea itia, ta mozkorren komentayuai apaizana bezainbeste kasu eitia.

Ta kontu serixotan jarrita gauza bat behintzat nahi dinat komentau; Ayuntamientuak gabonetako bialdu dun programa.

Biloba ikusi niñan ixil ta goibel, letzen ikasi berrixa den ta buzoi-ko propagandak e goitik bera letze ixkin. Zer tzun galdeu ta zea esan zitxanan:

– Amama, aurten zeatik ez dator Olentzero?

– Olentzero eztatorrela? Ta zeñek esan dizu hori, bihotza?

– Gabonetako programan ez ta agertzen amama, ta etorriko balitz programan jarriko luke.

– Lasai, bihotza, etorriko data. Etzendun ondo letuko.

– Amama, nik badakit letzen, e!

Biloba jun da geo, kurisidadez, ayuntamientotik bialdutako programa beiratu ñat ta, bilobak arrazoi!

Erregian karterua batetik eta erregiak bestetik, ta Olentzeron arrastoik ez!

Patxi xarran garaxan bezelaxe.

Bestelare batzuntzako nahiko errege ez, ematen dunez!

Karta itekotan eon naun Ayuntamientoa, baña azkenian karta jaso, "eztabaidatu", berriz "eztabaidatu" ta eantzuteako Aste Santu bueltan eongo geanez, denboaik ez alperrikaltzia erabaki ñat.

Karta horren partez sukalde txoko hau aprobetxatzia pentsatu dinat aurten ere Olentzero badatorrela esateko.

Nire biloba bezelaxe, Gabonetako programa irakurri duten gainontzeko neska ta mutikokorrek jakin dezaten, autoridadia ahaztu bada re Olentzero

eztala ahaztu, ta aurten e etorriko dala, ikatzak belztuta, pipa hortzian, arrautza, kapoi ta ardo botilakin, irrifarrez, beti bezela!

Afaxa, ordia, guk prepaau biharko ñau, urtero bezela, Olentzero re gizonezkua den eta.

sukaldetik



Arritxu

ZUMAIAKO NATUR TALDEAREN OHARRA

Idatzi honen bitartez Z.N.T.-ak pasa berri diren Mikologia eta Ekologia jardunaldien balantzea egin nahi dugu:

Lehenik eta behin, eskerrak eman zuen laguntza eskaini diguzuen guztioi: pintxo dastaketan parte hartu zenuten tabernariak, Inda Mendi elkarteak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikologia Saila, Zumaiako Udala eta, oro har, ekintzetan parte hartu duzuen guztiei.

Hala ere, gure iritziz, jardunaldietan izandako parte hartzea ez da izan espero genuen bezalakoa. Zumaian gertatu diren azken ezbeharren ondorioz (ibaian isurketak,



draga, errauskailua...) herrian eta herritarren artean berebiziko kezka sortu zen. Hori aprobetxatuz, kutsadura industrialaren arazoa jorratzea eta Urola ibaiaren egoera aztertzea

zumaiako natur taldea

zen gure helburuetako bat. Esan bezala, ordea, gure jardunaldietan ez da jendearen erantzun handirik izan eta gure aldetik nahiko harrituta agertzen gara.

Bestalde, ibaiko isurketei dagokionez, badirudi Udala aspaldiko gai korapilotsu honi irtenbidea aurkitzeko pausoak ematen ari dela eta hori eskertzekoa da.

Besterik gabe, hurrengo ekintzetan edota gure bileretan parte hartzeko gonbidapena egingen dizuegu. Gogoratu astelehenero elkartzen garela 21:00etan Mari kalean dugun lokalean (Oxford goian). Hurrengo arte!!!

LIBREPENSADOREAK

migel aperribai

Amandrearen ahotik entzun nuen lehen aldiz hitza. Librepensadoreak. Haren kontaktetan, bat-batean librepensadoreak agertu ziren garai bateko Zumaiaiko giza faunan: nazionalistak, karlistak, erreketek, gorrixak... Gehienetan hor bukatzen zuen zerrenda. Horregatik eragin zidan interes berezia gehikuntza berri hark. Horregatik eta, besteak ez bezala, librepensadoreak soilik iraganeko paisaia agertzen zirelako.

Beste espezieak, multzo handiagoak eta txikiagoak osatuz, itxura aldaketa sakonak edo arinak burutuz, ezagutu ahal izan ditut. Librepensadoreak ez. Nonbait, Herri honen historia bortitzaren gurpilak bide bazterrera bota ondoren, ez zuten aurrera egiterik izan.

Librepensadoreei buruz, amandreak ez zuen zehaztasun handitan sartu nahi izaten. Haien pasadizok gaztetxo bati kontatzeko modukoa ez zitzaizkiola iruditzen susmatu izan nuen nik beti. Gerra aurreko kontuekin hasten zenean, kontaketa moztuz –"eta librepensadoreak zer?"– galdetu

behar izaten nion behin eta berriz. Modu horretan bakarrik lortzen nuen zerbait gehiago jakitea, baina zer askorik ez, hala ere: "kasinoan juntatzen hituan, kasino liberalean!". Horrik aurrerakoa, ordea, ezinezkoa egiten zen. Galdetzen jarraituz gero: "Hori kontatu diat makina bat aldiz" esan eta gehienetan, ea banekien

Kostata jakin nuen, gaur egun Pulpo eta lehenago Patxi taberna zegoen horretan, aurretik "Casino liberal"-a izan zutela Zumaiaiko librepensadoreek. Hala zioen, behintzat, amandreak: "Han biltzen hituan!". Baina inoiz jakin ez dudana zera da, zein ziren eta zertarako biltzen ziren.

Irudi garbi baten faltan, denboran zehar handik eta hemendik jasotako puskaz osatu nahi izan dut haien erretratua. Puska ezberdinak ditut. Horietako batean, pentsaera alderik aurrerakoi azaltzen zaizkit. Beste batek, berriz, modernotasuna islatzen du. Eta, euskalduna fededuna zen garai haietan, fedegabe modura ere azaltzen dira besteren batean. Puska guzti horiekin osatu dut irudia. Baina oraindik ez dakit ondo enfokatuta dagoen erretratua. Irudika-

tzen ditudan modukoak ote ziren benetan?

Besteek nola ikusten ote zituzten hauek? Zenbat ziren? Ez al zuten inongo arrastorik utzi? Ba al dago erantzunak dituenik?



"Hotel Amayan" soldadu italianoak egon zirela galdetzen zidan berak. Era horretan, biok ere ondotoxokienez pasarte hori askotan entzuna nuela, amaitutzat ematen genuen jarduna.

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hartz estetika (zeramika metalarik gabe)

Implantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behe. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

EGUZKI
PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

MALEN ETXEA emakume elkarte: emakumeon arteko identifikazioa

malen etxea

Immigrazioa gaur egungo ezaugarrietako bat da, milaka eta milaka lagun mugitzen baitira munduan beste bizitza baten bila, eta hiri handietako kaleetan, eta herrietakoetan ere bai, beste kolore eta hizkuntza batzuk dituzten pertsonak dabilta, aspalditik bertan bizi izandako arbasoak dituztenekin batera.

Gu, emakume etorkinok, duela gutxi iritsi ginen Euskal Herrira, eta gutako askok Zumaian ezagutu genuen elkar, eta Zumaian gaude oraindik. Geure deserrotze istorioen berri ematen diogu elkarri, eta, mundu hobe baten aldeko borrokan gabiltza, gizon eta emakume guztiak eskubide eta aukera berdintasunean bizitzeko. Horregatik sortu genuen Malen Etxea. Izenak bere baitan laburbiltzen du guk nahi duguna. Batetik, Malen hitzak emakumea esan nahi du maputheen hizkuntzan —Hego Amerikako herri bat dira maputxeak—, eta, bestetik, Etxe hitza hartu gaituen herriaren hizkuntzatik hartu dugu. Beraz, Malen Etxea emakumeentzako etxea da.

Aurten, tailerren jardunaldien bidez Zumaiaiko emakumeekiko adiskidetasun lotura sendotu izana ospatu nahi du gure elkarteak. Jardunaldi horietan, gauza askoz hitz egin

genuen: hemengo eta hango emakumeez; lanarekin, diruarekin eta familiarekin dugun harremanaz; gizarteak inposatutako funtzioez; munduko emakumeen egoeraz eta horrek historian izandako bilakaeraz; eta geure burua balioestek duen garrantziaz, guztiok kontura gaitezen koloreez, hizkuntzez eta sinesmenez harago hemengo eta hango emakumeak antzeko egoeran gaudela eta berdintasunezko gizarte lortu nahi dugula.

Ibilbide horretan, Zumaiaiko Udaren laguntzaz, gizonezkoek eta emakumezkoek Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezaren Nazioarteko Egunean parte hartu genuen, eta,

horretarako, antzerkiaren hizkuntza unibertuala erabili genuen. Topagune horretan, beste emakume batzuk ezagutu genituen, eta, seguru asko, haiek ere bidelagun izango ditugu emakumeen eskubideak lortzeko bidean.

Urte berrirako proiektuen artean, amets bat dugu: Malen Etxeak egoitza bat izatea, egoitza horretan aukera izan dezagun hitz egiteko, irakurtzeko, kafea, tea edo matea hartzeko, edo, besterik gabe, gutako bakoitza nola dagoen jakiteko eta dagoeneko munduko emakume guztiok elkarrekin ematen hasitako urratsak antolatzeko.

Eskerrik asko, Zumaia.



Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

Peter panen sindromea

Hilargi Linazisoro

Lehengo batean email txorra hauetako bat bidali zidan lagun batek. Heldu izateari uko egiten omen zion eta bere ardura guztiak uzten omen zituen. Ez dut uste benetan horrelakorik egin duenik, baina ziur gogoia izan zuela, gutako beste askoren moduan.

Ez al duzue inoiz sentitu, Peter Panen moduan, gehiago hazi nahi ez duzuela? Betirako ume izan? Ni neu, 7 urte bete nituenean, negarrez hasi omen nintzen ez nuela gehiago hazi nahi esanez. Uste dut orduan konturatu nintzela ezin dela denboran atzera joan edo nahi den momentuan gelditu.

Urteak aurrera joan dira eta ez dut lortu denbora gelditzerik. Hala ere, ikasi dut momentuaz gozatzeko eta denbora aprobetxatzeko. Bizitzako fase guztiek dute bere xarma eta edertasuna, eta iraganeko pentsatzen oraina ez disfrutatzea izugarritzeko pena litzateke. Carpe diem zioen gure kapitainak eta ahal bezala lelo horri heltzen saiatzen naiz, oraindik fase eta momentu asko baitituzte deskubritzeko eta disfrutatzeke. Bizi dugun momentua gozatu behar dugu, urteak pasa ondoren, nahi adina disfrutatu ez dugula konturatzeko, alferrik izango baita damutzea. Baina, hala ere, noizean behin (batez ere fakturaren bat edo ordaindu behar denean) sartzen zait berriz ume izateko gogo hori. Gorka, ni bakarrik al naiz Peter Panen sindromea duena, edo noizean behin, zuk ere nahi izaten al duzu Liberen lekuan jarri?



Papo sindromea!!!

Gorka Ormazuri



Ez, ez eta ez!!!! Ezta pentsatu ere!!!! Pirritzek esaten duen bezala. Ez nuke beste baten ordutegiaren eta erabakien arabera bizi nahi: goserik gabe jan behar, erabakitzen dutenean oheratu behar... Amigo! Ederki asko bizi nauk

orain eta hemen, eta zerbait eskatzekotan iraganari sasoi fisikoa eskatuko nioke, inoiz ahitzen ez zen indar hori; gaupasa egin eta oraindik ere fresko zegoen gorputz hura, hondartzan egun osoan futboleko eta olatuetan zebilen hura... Baina uste diat hauek beste kontu batzuk direla.

Gainontzean, uste diat, neurri handi batean, izandakoa izateko aukera guran dagoela. Izan haiteke ume eta alai eta lasaia ibili jolasean, edo nerabe eta ligatzen hasi itsu-itsuan. Aukera hirea duk eta, gainera, abantaila handi batekin: egiten duanaren kontzientzia daukak, badakik zer haizen, zer lortu dezakean eta zer galdu.

Dena dela, gerriak krak! egiten didanean gogoratzen nauk, bai, norbaitekin baina ez Peter Panekin, Matusalenekin baizik. Adin bakoitzak dizkik, bai, bere komeriak eta Peter Pan berak ere auskalo zein sindrome zituen.

Hik zer, Karmelo, hik nola daramak sindrome kontu hau? Corporación Dermoestética-ra bisitarik egin al duk? (tarifak eskura baldin badauzkatzeko bidali).

Stop sindromea

Karmelo Arroiabe

Bai Gorka, udazken honetan egin diat bisitarik Amabirjinik gabeko Lourdes berri horretara. Plantxing izeneko azal tiramendu bat egin zidatek eta hurrengo elkar ikusten dugunean nabariko dek nola aurpegiko ximurdurak ia guztiz desagertu zaizkidan. Orain begipean ditudan itzal txiki batzuk, propio utzitakoak dituk, ebakuntzaren arrastoak ezabatzeke. Ondoren, aurpegia hain fina gelditu zaidanez, belarriak harro xamar zeudela eta barrurantz bildu zizkidatek. Agerian gelditzen ez den leku batean ere egin diat aldaketatxo bat. Hor luzamendu bat egin zidatek eta itxuroso gelditu zaidak. Ez zekiat probetxu handirik aterako dioten baina... Zentimetroko kobratzen ditek, eta egia esan ez zaidak batere merke atera. Tarifak email pribatura bidaliko dizkiet.




Gizakiak, gizaki denetik izan dik denbora menperatzeko tentazioa. Nik, egia esateko, ez diat haurtzarora bueltatzeko batere gogorik. Hura oso zorionsua izan ez zelako edo, kontua dek oroitzapen goxo gutxi ditudala. Aukeran, atzera egitekotan nahiago nuke 20-30 bitarteko adinera bueltatzea; bizitzaren bide nagusia aukeratzeko garaira, gauza garrantzitsuenak erabakiko diren unera alegia. Denbora menderatu nahia, atzerantzako norabidean joateko izaten dek gehienetan, iraganeko garaietara bueltatzeko; baina nire kasuan, eta, gorputzean egin ditudan berrikuntzak egin ondoren, denboraren gelditzearekin ere konformatuko nituke; nagoen bezala gelditzearekin, alegia. Ah!, harrigarria badirudi ere, denbora zertxobait aurreratzea ere ez litzaidake batere inportako. Orain abenduaren erditik urtarrilaren 7ra instante batean pasako bagina benetako poza hartuko nuke.

alaiko labirintoa txikitu zutenekoa

Ez da duda handirik egon hilabete honetan. Jendea ez dago oso gustura erakundeek etxebizitza hutsen inguruan hartzen dituzten neurriekin. Botoa eman dutenetatik %3 besterik ez da agertu erakundeekin ados. Bestalde, erantzun gehien izan dituen albistea Alai auzategiko labirintoaren desagertarekin lotutakoa izan da. Badirudi Udalak ez duela errespetatu bizilagunen iritzia eta horrek sutu egin ditu bai bertan bizi direnak, baita beste auzategietan bizi direnak ere.

INKESTA



IRITZI BATZUK

ERANTZUNAK

Labirintoa suntsitu dute

Wali, 2004/11/25 - 09:24 AM

Nik galdere bat Kaxkarri: ulertus neukan labirintoaren gure hori auzokideen jabegekoa zela, hau da, lurra ere ez zela Udalarena. Hala al zen? Udalak ba al zuen herriakontik egiteko eskubiderik?

Bertsalde, entzunda neukan Udalak or haurrentzako parke bat ere egin nahi zuela. Ez dakit hala izango den. Ondo lagoke Udalak hori argitzea.

Erantzun gai nagusiari | Erantzun hori

Labirintoa suntsitu dute

Itxaso, 2004/11/25 - 09:50 AM

Neu ere harrituta geratu naiz, zukalderko lehiotik begiratu eta labirintoa herriak ez zuelako ikusi dudanez. Ez dakit ez zergatik, ez zentzarako kendu diguten urtetan hor egon den parkea. Gainera batuen bere grazia labirintoak. Jendeak kalean dio aparkalekua egiteko kendu dutela...baina orokorrean denek harrituta begiratzen dute...

Labirintoa suntsitu dute

Kaxka, 2004/11/25 - 10:03 AM

Jabegekari dagokionez, nik gurea handirik ez dakit. Badakit auzokideek ordaindutako terrenok direla horiek, baina horrek ez du eran nahi bereiziena denik. Aken finean, erabilera publikerako dagoen espazio bat da, eta hor Udalak eskumen osoa du. Duela urte batzuk ere etxabaida hori sortu zen, labirintoaren ondoan zegoen belardi zati bat zela eta (Eroski aldera). Udalak proposatu zuen belardian zati bat jatea aparkalekua egiteko, eta auzokideek ez zuten, hura bereiziena zela eta Udalak ezin zuela herriakontik egin. Ba handik egun gutxitara makinak sartu eta aparkalekua egin zituzten. Nik urte dute udalak legez baduela hori egiteko. Kontua da nola egiten den, zeta? Zergatik ez dute galdetu auzoan? zergatik ez dute proposamenik eskatu? Haurrentzako parkeari dagokionez, hala dela entzun dut, eta espaloiak ere zabalduko dituztela. Baina hori radio gehukeriari esker dakit nik, aske... Baitaiek badu joratzeko gaita...

Erantzun gai nagusiari | Erantzun hori

Labirintoa suntsitu dute

beñe, 2004/11/25 - 12:23 PM

ni ez naiz inguru harritan bizi, ta beraz ez diot Labirintoari halako kanfio berezirik (nahiz ta txikitzen hor ERE futbolaren jolasbutekoak garen). Baina kontu gufiri herrian sunura etortzen zaidana da zein errega dan haribeste orotzapen eder sortu izan dizkiguten herriko txokoak makina batekin ordu betean suntsitzea. Ikaitela gabeko Paolaldera ni neu ez naiz ohitu oraindik, adibidez.

Baina zer egingo diegu ba, "hemia eraldatur doa, hobetuz, auzialdirako egokiago hornitutako txokoak eraiki-zortu behar dira"...bai bai, badakit heri gurria, baina txikitako orotzapenak ez dira ta inoi "modernitatearen" logika herretan kabitzen.

Besterik ez, Labirinto inguruko bitzenleak, animo eta zeuen eskubideak eta orotzapenak ondo aldarrikatu eta zaindu!



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
francés
euskara
inglantia
espagnol
catalonian
suomi
basc
català
finnois
français
anglés
castellano
finlandés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Aitziber Igoa eta Haritz Romanelli

“esperientzia txar
honetatik asko ikasi dugu”

Aizarnazabalgo baserri batean hartu dute aterpe Aitziber Igoa eta Haritz Romanellik, herriko builatik aparte. Familiakoen babesean atsedan hartzen ari dira eta abenduko asteburu luzea makrobiotikako topaketa batera joateko aprobe txatu dute. Ba omen zuten horrelako zerbaiten premia.

Haritz fisikoki baxu samar ibili da
—urte batzuk badira minbiziak jota
dagoela— eta pilak kargatzea ezinbestekoa
du. Kanpoan euria da, baina barruan giro
goxo-goxoa dago. Botak erantzi eta
egongela handi bateko ertz batean eseri
gara, ni sofan, beraiek lurrean.

XABIER AZKUE

Aste batzuk igaro dira atxilotzera joan zitzaizkizuenetik.
Nola gogoratzen duzue gertaera hura?

Aitziber. Isiltzen edo ezkututzen saiatzen zara, baina alferrik da, jendea kalean galdezka hasten zaizulako, borondate onez betiere. Eta eskertzekoa da, babestua sentitzen zarelako, maitatua... Nik behintzat hitz egin beharra daukat, premia sentitzen dut gertatutakoa aztertzeko. Bajoia han nengoenean baino gehiago hemen eman dit, jendea zenbat kezkatu den eta gertaera nola bizi izan zuen ikusita. Logelan nagoenean, erdi lo, edozein soinu entzun eta salto egiten dut, Haritzi estu-estu heltzen diot, beldurrez. Askotan izerdi patsetan esnatzen naiz, oraindik han egongo banintz bezala. Gauza asko ditut gogoan: bidea, kalabozoa... Oso gertu daukat dena. Abentura koxkor bat izan zela pentsatzen duzu, egunen batean kontatzeko modukoa, baina amesgaizto oso erreal aizan zenb enetan.

Haritz. Errealitatera etorri beharra dago: pentsatu, sakondu, saiatu gauza positiboak ateratzen... Ni indartsuago




Enbixen Hainek 10 batz, 48100 Berriz, Bizk. (945) 10 10 10 ekin@enbix.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

 **DIGITAL +** **CANAL+**

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

 Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

sentitzen naiz orain. Etiketa batekin gaude, markatuak Estatuarekiko; Aitziber baldintzapeko askatasunean dago eta sinatzera joan behar du astero. Sumarioa sekretupetik altxatzen badute litekeena da berriz ere deklaratzera deitzea eta epaitzea; arriskua hor dago. Orain edozer gauza txiki lehen ez bezala sentitzen dut, nahi gabe etorri egiten zaizkizu orduko sentipenak... Hau dena landu beharra dago eta oso ondo etorri zaizkigu zubiko lau egun hauek erlaxatzeko, orain artean ez dugu aukerarik izan eta.

Biok ere makrobiotikan, meditazioan, arnasketa berezietan eta horrelakoetan aritzen zarete. Nola lagundu dizue horrek egoera honi aurre egiteko?

H. Kontzientzia oso lasai izan dut, burua oso indartsu sentitu dut. Gaitzak gauza asko erakutsi dizkidalako, makrobiotika munduak beste argitasun bat, ikuspegi zabalago bat eskaini dizkit. Hasieran kaka eginda nengoen, urduri, batez ere hasierako parafernalia harekin beldurtuta: eskandalua, atejoka, hainbeste polizia... Baina gero barruan oso tinko, indartsu, lasai egon nintzen, mentalki inoiz baino sendoa-go. Fisikoki oso gaizki nengoen, ordea; bertan geldituko nintzatekeen Madrilera eraman izan banindute. Ez dut ulertzen nola izan dezaketen hainbesteko gorrotoa gurekiko; polizia bat izan nuen begirada zuzen-zuzen nigan jarrita, eta begiak gorri-gorri jarri zitzaizkion, mehatxuka bezala, ahal zuenean egurra emango zidala adieraziz... Burua jaitsi nuen eta pentsatu nuen nik ez neukala hainbesteko gorrotorik berarekiko. Beste faktore bat lagundu diguna izan da kaleko girotik erretiratu egin garela azken urteotan; nahi izanda ere, ez geneukan informaziorik galdetzen zigutenari buruz. Izenak eskatzen zizkiguten, baina ni lasai nengoen. Alderdi politiko guztietako lagunak dauzkatz.



“Sumarioa sekretupetik altxatzen badute litekeena da berriz ere deklaratzera deitzea eta epaitzea; arriskua hor dago”

A. Niretzat ere meditazioa oso baliagarria izan da, bestela zoratu egingo nintzatekeen. Trantze moduko batean egon nintzen egun haietan. Gorputza gaizki neukan, botaka eta beherakoa-rekin ibili nintzelako hasieratik. Meditazioa, gimnasia eta baraua izan ziren nire laguntza. Ezin nuen lorik egin eta bestela jokatu behar izan nuen. Lehendik lan handia eginda neukan eta azken bi urteetan ikasitakoak izu-

garri lagundu dit. Oso kontziente nintzen barrura joan nintekeela, baina garbi nuen ezingo niola horri aurre egin, inola ere saihestu. Pentsamendu iheskorrak ziren, hala ere, berehala joaten zirenak. Nik batzuetan irribarre egiten nuen, trantze moduko batean nengoelako, zentzurik ez duen egoera irreal hartan nengoela ikusita, eta haiek urduri jartzen ziren ni horrela ikusita. Haritzen egoerak kezkatzen ninduen asko, barruan zegoela esaten zidatelako. Izugarria zen haien gorrotoa ikustea eta nik esan nien



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369



Haritz zer bait egiten bazioten kartzelatik irtendakoan beraien bila joango nintzela, eta une hartan hori egiteko gauza sentitzen nintzen.

Zer sentitu zenuten laguna tratu txarrak jasaten egon zitekeela jakinda?

H. Ni lasai nengoen, banekielako Aitziber indartsu zegoe-la. Ez zuen merezi gehiegi kezkatzea, beraien jokoan erortzea, ez zegoelako zer eginik, alferrik zelako. Zain egon nintzen egun horietan, alferrikako kezketan sartu gabe, eta Aitziberri konfiantza bat transmititzen saiatu nintzen, batez ere urruti gaudenean konexio oso ona daukagulako. A. Urruti gaudenean konexio hobea daukagu elkarren

ondoan baino, bizikidetzan txoke egiten dugu. Han nintzela sentitu egiten nuen bera nola zegoen eta orain patxada haren premia dut. Baimena eskatu dut bolada batean kanpora joan ahal izateko eta barruko bake hori bilatu ahal izateko. Oso ondo gaude hemen, baina premiazko dut osatzea, zauriak sendatzea, indartzea, zentratzea, isiltasunean eta bakardadean. Hemen orain ezin dudalako lortu. Horretarako gogotsu nago eta ea baimena ematen diguten.

Herritarren aldetik babes handia jaso zenuten, baina Udalak ez zuen elkartasun adierazteko mozioa onartu... H. Badakigu munduak eta politikak nola funtzionatzen

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurutxaga plaza

943 86 19 16



AIZPURUA

LIBRURUA
R U D E N D A

Alta-Mari suzategia, 17
Tel. 943 861569



**Mota
guztietako
altzariak**

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tallerra: 943 860914
denda: 943 862385

Azaroaren 16an goizeko 2:00etan Espainiako poliziak azaldu ziren Urteaga auzoan duten baserrian, biak atxilotzeko asmoz, ustez ETArri laguntzea leporatuta. Donostiara eraman zituzten berehala.

Haritzek gaixotasun larri bat zuela azaldu zien poliziei eta mediku batek egiaztatu zuen hori. Amarako polizia etxean deklaratu eta aske utzi zuten, goiz hartan bertan, kargurik gabe.

Aitziber Madrilera eraman zuten eta 2 egunez egon zen inkomunikatuta. Azaroaren 18an igaro zen Garzon epailearen aurretik eta aske geratu zen, berme edo fidantzarik gabe. Kolpeak eta tortura psikologikoak salatu zituen epailearen aurrean. Astero joan beharra du epaitegira sinatzera.

Atxiloteten egunean bertan Zumaian batzar bat egin zen egoera azaltzeko eta ondoren 150 bat lagunek manifestazioa egin zuten. Azaroaren 18an Udalak ezohiko udalbatzarra egin zuen, aretoa jendez gainezka zela, eta Izustarrik aurkeztutako mozioa –Haritz eta Aitziberri elkartasuna adieraztekoa– aztertu zuten; gainerako alderdiek, bakoitzak bere arrazoiegatik, ez zuten ontrat eman eta mozioa ez zen onartu.

duten. Pertsona baloratzan sartzea baino, alderdiek itxura bat mantentzea bilatzen dute. Erdian egotea oso eroso da, baina ezkerreko edo eskuinera joan beharra dago, zuri- ra edo beltzera. Itxurakeria handia dago. Ardurarik ez zuten hartu nahi eta baldintzak jartzen zituzten elkartasuna adierazteko ere. Bukaeran lau hitz esateko premia neukan eta lasaia geratu nintzen.

Lagunak asko kezkatu ginen "fase terminal" batean zeundelako askatu zintuztela entzunda...

H. Jende askok begirazunarekin beste barriora bidaltzen nau, hain argal eta eskas ikusita. Ez dit afektatzen, oso landuta daukat. Familiari kalte handiagoa egin dio niri baino. Larri nagoela? Hala da. Ekilibrista bat alanbrearen gainean bezala nago ni. Gorputzak alde batera edo bestera egin dezake, eta erori. Goizero-goizero "hemen nago" pentsatzen dut eta eskerrak ematen ditut. Ospitaleak, tratamenduak... zeure askatasuna konprometitua geratzen da medikuen eskutik; bizitza preziatuegia da besteen eskutik uzteko. Beldurra eta gaitza biak zaku berean daude eta barruko bakean dago sufrimendu eta poz guztien giltza. Orain bi urte utzi nituen radioterapia eta kimioterapia saioak, neure kabuz, eta esperientzia horrek ate batzuk ireki eta beste batzuk itxi egin dizkit.

A. Batzuetan horrelako egoera zail eta deserosoak Pandoraren kutxa moduko batean gordetzea da errazena, eta gero min handiagoa egiten du agerian jartzen denean. Guk landuta daukagu gaia eta ez digu beldurrik ematen. Momentua bizitzaren ikasi dugu. Epe luzeko helburuak jartzea zail



egiten da. Lehen Haritzen arrisku faktorea zegoen, orain berriz ere nire bila etor daitezke. Azkeneko abenturarekin finkoago geratu zait bizitzan gertatzen diren gorabeherak ezin direla kontrolatu, ez daukela geure esku. Gero eta garbiago ikusten dut esperientziak, ona eta ez hain onak, begiak irekitzeko edo betiko moduan, "estankatuta", gelditzeko balio dutela. Zero edo zer irabazteko beti zer edo zer galdu behar izaten da.

H. Esperientzia txar honetatik asko ikasi dugu, baina fisikoki eta mentalki oso kolpe gogorra izan da. Orain baimena ematen badigute datozen hilabeteetan landuko dugu hau dena eta ondorio positiboak ateratzen saiatuko gara.



Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Herria astindu zuen istripu baten oroitzapena

Hilaren 6an bete ziren 20 urte PESA enpresako autobusa itsasora amildu zenetik. Istripuaren ondorioz lau lagun hil ziren, autobus gidaria eta hiru bidaiari. Harridura, beldurra, dolua eta samina nagusitu ziren Zumaian egun haietan. Orri hauetan, istripua eta herrian bizi izan zen giroa oroitu nahi izan ditugu.

JUAN LUIS ROMATET

1984ko abenduaren 6ko arratsaldeko ordu biak pasatxo ziren eta euri tantak erortzen hasiak ziren. Itsasoa hase-re zegoen eta olatuek haitzen kontra gogor jotzen zuten. Donostiatik Zumaiarako bidea betetzen zuen PESA enpresako autobusa ordu batean atera zen hiriburutik eta

Zumaiaara heltzen ari zen. Hasiera batean bidaiariak zor-tzi zirela zabaldu bazen ere, barruan autobus gidaria (Joxe Osa Martija) eta lau bidaiari zihoazen. Ohi baino bidaiari gutxiago zihoazen, jaieguna zelako ikasle askok jai zutelako.

Orroaga pasa ondoren, Santioko hondartza pareko tunelera heltzen ari zela, autobusak irrist egin, 40 zenti-metro inguruko altuera zuen petrila igo eta uretara erori zen. Autobusa osorik erori zen haitzetara. Denbora gutxi-ra, olatu handi batek ibilgailua hartu eta hormaren aurka bota zuen. Olatuek bidaiariak autobusetik atera zituzten. Gurutze Gorriko kideak izan ziren istripua gertatu zen gunera heltzen lehenetakoak. Oso une gogorrak bizi izan ziren bertan. Garai hartan Zumaia eta Zarautz bil-tzen zituen guneko Gurutze Gorriko buru zen Josetxo Mendizabalek egunkari batean aipatu zuen bezala, "istri-pua gertatu zen lekura heldu ginenean dozena erdi bat gorpu ikusi genituen flotean. Agertu eta desagertu egiten



ziren. Jendea hiltzen ikusi genuen arroken aurka jota, eta ezin izan genuen ezer egin".

Erreskaterik ezin egin

Salbamendua soka eta egurren bitartez egiten saiatu ziren. Bidaia batek soka hartu zuen baina olatu batek hormaren kontra bota eta konortea galdu zuen. Istripua gertatu zen lekura hurbildu zen surflari batek bere taula ere bota zuen uretara autobuseko bidaiari batek har zezan, baina ezin izan zuen hura bereganatu, korronteak galarazita.

Itsasoa gero eta haserreago zegoen eta sorosleek ezer gutxi egin zeza keten. Olatuen bortizkeria zela-eta itsasotik ezin ziren istripua gertatu zen lekura hurbildu eta haitzetatik ere ez ziren heltzen. Olatuek autobusa hormaren kontra botatzen zuten eta autobusa txiki-txiki eginda geratu zen. Denbora gutxira, autobus gidariaren gorpua aurkitu zuten haitzetan. Joxe Osa Martijak 58 urte zituen. 12 urtez autobus gidari izan zen eta ez zuen inoiz istripurik izan

Zumaia, Zarautz eta Mutrikuko Gurutze Gorriko ontziak hurbildu ziren salbamendu lanetan laguntzera. Urpekariak zekartzaten ontzi hauek. Ezin izan zuten, ordea, haitzetara urreratu mareak beheara egitearekin batera olatuak handitzen hasiak baitziren. Denbora gutxira Zorione Esnal eta Alazne Kalparsororen gorpua aurkitu zituzten Santiagoko hondartzan. Zorionek 18 urte zituen. Alaznek, berriz, 19. Iluntzea heltzearekin batera, salbamenduko lanak bertan beheara utzi zituzten.

Istripuak oihartzun handia izan zuen Zumaiatik kanpo. Garai hartan lehendakari zen Carlos Garaikoe-txea istripua gertatu zen lekura etorri zen. Berarekin

batera, Eusko Jaurlaritzako Barne Kontseilaria (Luis Maria Retolaza) eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusia (Jose Antonio Ardanza) ere Zumaia etorri ziren.

Uretatik ateratako gorpua Gurutze Gorriaren postura eraman zituzten. Istripuak Zumaia guztia astindu zuen. Ehunka lagun hurbildu ziren bertara senide, lagun edo ezagunen berri jakiteko asmoz. Samina nagusi zen bertan, hildakoez gain, desagertutat jotzen ziren bidaiariak herritarrek izan zitezkeela uste baizen. Zumaia-ko alkateak (Castor Agirrezabalagak) egunkari bati adierazi zionez, herritarrek etengabe aritu ziren deika desagertuen artean beraien seme-alabak edo anaien bat egon zitezkeen beldur.

Orduak pasa ahala, desagertuta-ko bidaiariak hiru zirela uste zen. Kopuru hori, ordea, bakarrera jaitzi zen, hasiera batean desagertutat jotzen ziren bi lagunek beraien berri eman ondoren. Beste bidaiari baten falta sumatzen zen: Getaria-ko Maria del Carmen Ballesteros, 18 urtekoa. Haren gorpua hurrengo

goizeko bostetan aurkitu zuten sorosleek, istripua gertatu zen lekutik 50 metrotara. Gurutze Gorria, DYA, Ertzaintza eta Guardia Zibileko kideek kostaldea miazten jarraitu zuten hildako gehiagoren bila. Armadako ontzi bat ere etorri zen laguntzera. Getaria-ko gaztearen hilotza aurkitu ondoren, eta desagertu gehiago salatu ez zituztenez, salbamendu lanak amaitutzat jo zituzten eguerdi partean.

Ostiral arratsaldean egin zen San Pedro elizan Joxe Osa, Zorione Esnal eta Alazne Kalparsororen hileta elizkizuna. Parrokian lekurik ez eta ehunka herritarrek kanpotik segi behar izan zuten elizkizuna. Parrokiaren alda-

Olatuen bortizkeria zela-eta sorosleak itsasotik ezin ziren hurbildu eta haitzetatik ere ez ziren heltzen



**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

**Kresala
Taberna**

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

**ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROEZTEGIA**



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Ezintasuna eta negarra

"Egun arraroa izan zen. Ez zegoen denboralerik, baina бага handia zegoen eta izugarritzko olatuak". Hala gogoratzen du egun hori Josu Urangak. Istripua izan zen egunean 18 urte zituen Josuk eta soldaduska egiten ari zen Zumaiaiko Gurutze Gorrian. Istripura azaldu zen lehenetakoa izan zen. "Autobus bat uretara erori zela dei egin ziguten eta anbulantzia joan ginen hiru lagun. Trafikoa geldirik zegoen eta jende gutxi zegoen inguruan. Gu heltzean autobusa oraindik tente zegoen haitzetan. Bidaiaiekin hitz egiteko aukera ere izan genuen. Halako batean hiruzpalau olatu handi etorri ziren eta autobusa guztiz txikitu zuten. Autobusaren tetxoa airean eraman zuten. Neska bat aulki bati helduta ikusi nuen".

Urduritasuna handitzen joan zen. "Gu konturatu gabe, Juanjo Carballok, Gurutze Gorriko lehendakari zen Juan Carballoren semeak, uretara salto egin zuen. Oso igerilari ona zen bera. Hark

momentu batean bi bidaiaari heldu zituen, baina olatuek eskutik kendu zizkioten. Guk ezin genuen ezer egin laguntzeko. Inoiz izan dudan ezintasunik handiena sentitu nuen orduan, negar egiteko gogoa izan nuen".

Salbamendu lanaz ezinezkoak izan ziren. "Esan liteke erreskaterik ez zela egon. Egoerak ez zuen laguntzen eta denborarik ere ez genuen izan, ordu laurden batean olatuek autobusa xasisean utzi zuten eta. Guk lehen gorpua, gidariarena, jaso eta basera itzuli ginen. Ordurako anbulantzia gehiago zeuden inguruan. Basera heldu ginenerako jende pila bat zegoen bertan. Autobusa jendez beteta zegoen zurrumurrua zabaldu zen eta denak galdezka ari ziren zer gertatu zen eta hilak eta desagertuak zein ziren. Morboaren usainean urreratu zirenak ere bazeuden bertan". Arratsalde osoan helikopteroak itsasoa begiratzen jardun zutela gogoratzen du. Arratsalde berberean beste zerbitzu batera deitu zuten Josuren anbulantzia eta salbamendu lanak utzi behar izan zituen.

meneko kaleak jendez gainezka zeudela diote garai hartako egunkariekin. Jose Maria Setien apezpikuarekin batera beste 17 apaizek eman zuten meza eta bertara euskal politikako agintari ugari joan ziren. Meza amaitu ondoren, jendetza batek lagundu zien zerraldoei kanposantura. Egun osoan dolua izan zen Zumaian eta denda eta tabernak itxita egon ziren hiletak iraun zuten bitartean.

12 urteko autobusa

Egunak pasa ahala, oraindik ez zegoen argi zer gertatu zen bihurgune hartan. Autobusaren atzetik zihoan kamioi bateko gidariak esan zuenez, autobusak irrist egin eta uretara erori egin



Parrokian lekurik ez
eta ehunka lagunek
kanpotik jarraitu
behar izan zuten
elizkizuna

zen. Autobusak ez zuen ia markarik utzi bide ertzeko petrilean. Autobusak 38 bidaiairentzat lekua zuen. BI-5248-B matrikulako "Pegaso-Comet" modelo zen eta 12-14 urte inguru zituen.

Istripua gertatu eta ordu gutxitara, CCOO sindikatuak kostako bidea egiten zuten autobusen egoera txarra salatu zuen. Haien esanetan, istripua izan zuen autobusak 12 urte zituen gutxienez. Sindikatu horretako garraioen arloko arduradunek esan zuten, autobus batek ezin zuen 10 urte baino gehiagoan zerbitzuan egon. Adierazpen horiei Eusko Jaurlaritzako garraio sailburuak erantzun zien, esanaz autobusak azterketa pasa berria zuela eta egoera egokian zegoela.

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kaler, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kaler, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiralzelaen mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa,
Balorazioak



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

luis mari aizpurua EL DIARIO VASCO-ren zumaiaiko berriemailea izana "itsasoarekin lehen ere eskarmentuak izan dira hemen"

Luis Mari Aizpurua herrian egun haie-
tan bizi izan zen gertaeren lekukoa da.
Oso egun gogortzat jotzen ditu Luis
Marik egun haiek, nahiz eta aurrez ere
herri honek itsasoarekin lotutako trage-
diak bizi izan dituen.

Zein oroitzapen dituzu istripuaz?
Goiz hartan bankuan lan egin nuen.
Arratsaldeko 3etan etxera itzuli nintzen
bazkaltzera. Nik ez nekien istripuari
buruz ezer ere, ez zen eta ezer zabal-
du. Emazteak esan zidan: "Zerbait ger-
tatu da, ba". "Eta zuk nola dakizu, ba?"
galdetu nion. Ahizpak Zaragozatik
deitu omen zion Radio Nacionalean
entzunda. Bazkaldu ondoren Santiago-
ra joan nintzen. Kristoren koadroa
zegoen. Gurasoak hantxe ziren nega-
rez, behea jota. Autobusa tunelaren
pare-parean zegoen zizko eginda.

Zer giro bizi izan zen Zumaian?
Herria astindu egin zuen. Hiru herio-
tza batera izatea... Orain 44 urte,
1960ko azaroaren 15ean paol muturre-
an 6 gazte hil zireneko istripua etorri
zitzaion jendeari burura. Lekua ere
antzerakoa zen, justu aurrean, bata
paolean eta bestea Santiagoko ingu-
ruan. Ez dago bata bestearekin konpa-
ratzerik, istripuak diferenteak baitira,
baina hura gogoratu zuen jendeak. Oso
gogorra izan zen, hiru-lau lagun hiltzea
ez baita ohikoa. Zumaia hirurak oso



ezagunak ziren gainera, familia oso
herrikoietakoak.

**Ohikoa baino jende gutxiago omen
zihoan autobusean.**
Desgraziaren barruan zorte hori izan
zen. Konstituzio Eguna zen, abendua-
ren 6a eta erdi jaieguna erdi laneguna
zen. Eskola batzuek jai egin zuten eta
beste batzuk, berriz, lana. Alaznek eta
Zorionek, dirudienek, ez zuten eskola-
rik, baina bere zereginak izango zituz-
ten. Esan liteke zortea izan zela; izan
ere, autobusa topera ibiltzen baitzen,
jendez beteta.

Nola erreakzionatu zuen jendea?
Herritarren lehenengo erreakzioa zen-
bat jende zihoan galdetzea izan zen.
Hildakoak zenbat ziren galdetzea. Jen-
deak uste zuen, egunero bezala, auto-

busa beteta zihoala. Denbora aurrera
joan hala gauza gehiago jakiten joan
ginen eta argitu zen hildakoak lau zire-
la. Hiletetan jendetza izugarria egon
zen. Eliza gainezka zegoen. Hiru herri-
tar hiltzean, gainera gazteak eta nola
izan zen jakitean, oraindik min gehiago
eragin zuen. Oso hunkigarria izan zen.

**Jakin al zen istripua zergatik gerta-
tu zen?**

Ez zen jakin eta ez da inoiz jakingo.
Oso arraroa izan zen. Nik uste autobu-
saren akats bat izan zela. Joxe oso gida-
ri zentzuduna zen, poliki ibiltzen zen
eta autobusa ere ez zen punta-punta-
koa. Nire ustez akats mekanikoa izan
zen, direkzioa puskatu zitzaion edo
halako zerbait. Erori zen lekuan baino
100 metro lehenago kurba bat dago.
Bihurgunetik ateratzen hasi eta zuze-
nean goitik behera erori zen.

**Olatu batek jo ondoren erori zela
aipatu zen.**


Ez dut uste olatu bat izan zenik. Itsasoa
mugituta zegoen, bai. Hortaz akorda-
tzen naiz, baina puntu horretan kon-
kretuki ez dute olatuek jotzen. Orroa-
gako kurban bai, hor jotzen du, baina
autobusa erori zen lekuan ez, hor beste
direkzio bat hartzen du. Itsasoarekin
lehen ere eskarmentuak izan dira
hemen; itsasoarekin jolas gutxi egin
daiteke.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adie@euzkalinet.net

by maize

RASIORNO MENTAL

Zumaian punka ez da hil.

...berriak ditugu

Zumaian punka ez da hil.

Azken aldian musika talde berriak ditugu herrian eta horietako bat TRASTORNO da.

Keja batzuk badazkau:

Herria hilda da (Zumaia esta podrida) ta kon
gutxi eoteia. Gainera herrian ez da kon

guztiak estela. Gainera, josteko egiteko tokirik gertatze bat behar du edo bestela Oxford

lagatziare bazekaten.

lagatziare bazekaten.
Zaharmentzako gauza asko eoteia ta guretzako batez
... onddoak dazkau ta deshumidifikadoria behi
... taldiak badaude lo

Guk behintzat lokala badakau, taldiak badaude lo

MUNDO PUTA

外

Haar da haan garante pata
garantatsienia dinia ta itam
faltokkara da raganci
dewa ngantata bida dani!

Telchusta da jantka
 grde vrasca mangulitus
 divink itititita dande jontor
~~divink itititita dande jontor~~
 divink itititita dande jontor

Cui pot să îi alături ?
 Iarna este alături în
 Bășca caldă, înăuntru
 de la mine se murează în
 pot

KONTZIERTUAK JOTZEKO GOGO HAUNDIA DA
DEITU!!! 699333917 (fofi)

Ez gaude desfasauta. Pentsatzen deuna esaten deu et

zaigun musika jotzen du. Guri punka gustatzen zai

beza eran
erbeza eskatu
ua jo ta neskatan in
XABINO: bateria jo ta gratis eran



arukin
iazko
eskari
rtu zan
tzierto
tziertuak

estazioan, hondartzan amaiako plazan
Orion, Aizarnazabalen eta
Legazpiko gaztetxean jo de.

ar deu.
kalik gabe

RIP, eskorbutu, Deskontrol,
Cicatriz, Hell beer boys,
Sex Pistols, Ramones, Animales muertos
eta horrelako taldiak
gustatzen zaizkigu.



AKAU
a gustatzen

Amaiako plazako kontzertua emateko
udaletxian baimena eskatu genion.
Asilus, Sastraka ta Alimañas de
Zumaiakin batea go genun. Ondo pasa
genun jotzen ta kontzertua ondo eon
zan. Kejak eon zian nahiz eta
larunbat arratsalde batian jo.

gu ta punka jotzen deu.

Din, dan, don... Eguberri on!



Bai, jaun-andreok, neska-mutilok, 2004 urtea amaitzear dago. Hemendik gutxira tripa festa galantak egingo ditugu eta Gabon Korua entzutean malko bat edo beste isuriko dugu. Urteroko ohiturak nola botako ditugu, ba, zakarrontzira.

1994ko abenduko Baleike-ra begiratzaren badugu, Gabonak presente zeudela ikus daiteke. Gabon Koruari buruz hitz egiten zuen artean abesbatzaren zuzendari den Agustin Zubimendik. Koruaren historiaren berri eman ondoren, zuzendari eta partaide izan diren lagun guztiak gorapatzten zituen Agustinek, eta baita "denen oinarrian eta iturrian Zumaia Herria: entzuten, onartzen eta txalotzen duena; patrikan eskua sartu eta bihotza zabaltzen duena".

Orain ohituta gaude, baina garai hartan eztabaida handia sortu zuten Itzurunen egindako obrek. Hobetze lanek aldeko eta kontrako iritzia eragin zituzten, bereziki goialdean jarritako "zaldiek", Udala eta elkarteak ez zirelako ados jartzen. Zumaia Arte Taldeak eskultura jartzearen albistea pozaren pozez jaso zuen, baina poza amorru bihurtu zen, eskultura aukeratzeko Udalak erabili zuen era ez baitzen, beraien ustez, egokia izan. "Lehiaketa egitea ezinezkoa izanez gero, gaia ikertzeko komisio berezia osatu behar zen", taldekideen ustez. Horren ordez, "Hirigintza Batzordeak gehien gustatu zitzaiona aukeratu zuen, inoren iritzia kontuan hartu gabe". Gaiari lotuta, "zaldien" arte kritika ere egin zuten taldekideek: "kas-karra" zen beraien ustez.

Javier Carballo "ehiztari grafikoa"-ri egin zitzaion elkarriketa 1994ko abenduan. Argazkia kultur iturria ikargarria izateaz gain, "argazkia artisauengana eta jendearengan hurbiltzeko bidea edo aitzakia" zela zioen Javierrek.

Tindouferaino egin genuen bidaia Baleike-kook, saharar herriaren bizimoduaren berri izatera. Bizitza oso txiroa zerametela zioen kazetariak, "esku hutsik ihes egin behar izan baitzuten beraien lurraldetik". Frente Polisarioak Euskal Herrian zuen enbaxadoreak independentziaren aldeko borrokari ekingo ziotela zioen. Ez dira gauzak aldatu azken 10 urte hauetan.

Kiroletan, Zesta Punta Eskola zen hizpide. Argazkian pilotari gazte batzuk ikus ditzakegu, haien artean, orain txapelduna dugun Gotzon Enbil.

Naturak (Hondartzetako dunak), sexualitatea (masturbazioa) eta antimilitarismoak ("Objetore eta intsumisoen kopurua etengabe gehitzen doa") bere tarteaz zuten. Oraindik gazteak ginen.



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

gabonak

Ukazina da, Gabonetan gaude... Egutegiak hala dioelako eta kaleak, telebista, dendak eta, oro har, dena gabon mezu kontsumistez beteta dago dagoeneko. Janaria, edaria eta opariak bihurtu dira egun haue-
tan benetako protagonistak, asko jan, edan eta erosi, azken finean. Gabonen benetako zentzua (baldu badu...) galdu zen aspaldi, eta egun hauek gehiegikerietan islatzen dira. Batez ere janariarekin... koipez eta pro-
teinaz betetako janariak ahoratzen dira, gozokiak eta alkoholodun edariak... osasuna-
ren kalterako, betiere. Baina badaude gauzak beste era batera egin ahal izatea, data hauek duten festa kutsua ahaztu gabe.

Urtero elikagai berdinak aukeratzen dira, tradizio baten antzera, aurten aukera izan daiteke aldatzeko. Adibidez, sarre-
retako koipez betetako hestebeteak aukeratu beharrean, entsa-



Izaga Garcia
Dietista eta
iridologoa

lada berezi eta bariatua, zainzuriak, orburuak... Itsaskiak jate-
an, purina gehiegi ahoratzen ditugu, hezueria (gota) dutenen-
tzat (eta, oro har, inorentzat) batere gomendagarri ez dena. Bigarren platera haragi eta arraina izaten dira, askotan biak; gehiegikeria da, liseriketa mantsotzen du eta logura eman. Betiere, egokiagoa izango da arraina aukeratzea, plantxan edo labean eginda, eta laguntzeko, patata frijituen ordeztu, baporean egindako barazkiak; eta saltsak ere alde batera utzi.

Postreak eta afalondokoak azukre eta koipez beteak izaten dira: turroiak, polboroiak, pastelak... Aukera askoz osasunga-
rriagoak ere badaude: frutak (batez ere pinaburua, digestioari laguntzen diolako, data hauetan zeharo goxoa), limoizko mussea, izozki naturalak... Azkenik, kafea hartu beharrean, gogorarazi nagi dizuegu infusioen aukera ere hor dagoela: digestioa laguntzen dute, eta, gainera, osasungarriagoak dira.

Gomendio hauek lehenetik ere ezagutzen genituen, baina berriz ere gogoratzea ez dagoela gaizki deritzot. Beste-
rik gabe, Gabon zoriontsua eta Urte Berri osasuntsua guz-
tiontzat.

HITZAREN ALDEKO TRIANGULARRA

Abenduaren 18an, 18:00etan Aita Mari futbol zelaian
ZESTOAKO, REALEKO eta ZUMAIKOKO jokalariek.



“Gernikako bonbardeoak barruan harrapatu ginttun”

...jarraipena

ABELIN LINAZISORO

Baleike: Gerra piztu zenean, Zumaian zer giro zegoen?

Donato: Hemen Gipuzkoan tomak hasi zianean guk galdatzen gendun, eta oain zer?, bildurrez. Gero, Irun hartu zutenean, akabo. Gero Donostixa hartu zuten eta handik aurrera guk ospa. Hemen bi barko hartu giñuzen, Marco eta Delfina, eta jota, hemendik Ondarruraino jun ginan. Erreparazixora etorritako barkuak zian hauek. Ondarrutik Laredora jun ginan eta handik Bilbora. Bilbotik frentera.

Zumaia, Ondarroa, Laredo eta Bilbo orduan.

Bai. Zumaian ebakuazixua etorri zanean, alondexigan tabako asko zeon eta dana partitu ein zan. Nahi zunak nahi zuna. Barquetan, berriz, bakailao asko geratu zan eta almazenatu ein zan gero partitzeko. Gero, hauek sartu behar zutenian, gu Ondarrura.

Laredotik Bilbora itzuli zinatenerako Euzkadiko Gobernuak batailoiak-eta antolatuta al zeuzkan?

Donato: Bai. Ni Saseta batailoian ibili nintzan. Goiko Torreko Joxemiel Etxabe ere, gure koadrilakua, gurekin ibili zan. Joxe Luix Ahuntxa eta Jontxu Uranga ere bai. Hau korneta zan.

“Refujixoetan jende asko hil zan. Etxea gainera erorita, erreta...”



Saseta batailoikoak non ibili zinent?

Jefu! Gu ametraladoretaoak ginan eta danian ibili ginan. Elgetan, Intxortetan...

Gernikako bonbardeoak barruan harrapatu ginttun. Bonbardatzen hasi zianian bakarrik tokatu nintzan. Joxemiel, Joxe Luix Panderua eta haixek danak alkarrekin zian eta ni bakar-bakarrik.

Nola libratu zinan bonbardaketatik?

Gu bezperatik Gernikako barrixo txiki batian ginan eta astelehen hartan lehenbiziki abioi bakar bat azaldu zan. Honei alkauetia deitzen giñun, beti gu zaitzen ibiltzen zalako. Hark rekorridoa egin zun eta Etxebarriako zubixa bonbardatu zun. Guk orduan: Goazen hemendikan Gernikara! Gernikara juxtu-juxtu ailegatu eta kanpaiak eta sirenak hasi zian! Eta gu, andadio!, saltaka refujixoetara! Refujixoetan jende asko hil zan. Etxea gainera erorita, erreta... Nik ez dakit nola, baina bakar-bakarrik geratu nintzan. Kauen zotz! Hura arratsaldia pasatu nuna! Obra bat zeon plazan bertan eta ni etxe haren azpira sartu nintzan. Momentu hartan Donato Otzango nerekin zan eta hark saltaka mendira ihes egin zun eta ni barruan ixkutatuta.

Ezkutatua zeunden etxe hura ez al zuten bota?

Ez zuten bota! Goiko aldia pixkat zulatu zuten, baina zutik geratu zan. Frontoi dana txikitu zuten eta etxeetako paretak

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia



ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER

ere sua eiten zuten. Tailerrak eta kuartela osorik geratu zian.

Gernikako Arbola ingurua zutik geratu zen, ba.

Hantxe nintzan, ba, ni! Inguru hartan ixkutatuta. Gernikako Arbolararen juteko aldapa bat zan. Ez det nik harrezkero ikusi aldapa hura.

Bilboko bonbardaketak ezagutu al zenituen?

Bai. Guk bi hilabete-edo frentean egoten ginan eta gero hamabost eguneko permisoa izaten gendun eta Bilbon egoten ginan. Hantxe tokatu zikan bonbardeo haundi bat. Gu Intxortetatik etorri berriak ginan erretiradan kuartelera. Intxortetan hartu gendun lehenbiziko paliza. Zumaia-rrak hamar bat-edo izango ginan. Limpieza general gertatu zan. Gudari asko gendun inguruan, ixa gehixenak irundarrak. Haixek danak hil zian. Proiektil haundi bat luakixan sartu eta akabo. Danak hil.

Hegazkinen bonba?

Ez. Kanoien proiektila. Abioiak artian gutxi zian. Gero sartu zian. 100 aparato igual ibiltzen zian gero. Bilboko zinturoia abioiak puskatu zuten. Haxentzako abioiak, alemanak eta italianoak, eta guretzat, berriz, batez.

Bilboko bonbardeo haundi hartan zu non zinen?

Orduan Bilbon zumaia asko zan. Herritik bialdutaokoak kamioietan. Gure Joxe Luix

eta hauek danak. Oaindik mutil koxkorak... Kamioietan Zumaitik bialdu zituzten. Koxmek. Hau nik lehengusua nun gainea...

Bilbo galdu zenean, zu non zinen?

Gu Artxandan ginan. Atake haundi bat jo zuten eta gu honela edo hala irten giñun handik. Hura galdu zanean, Santander aldera eramanak izan ginan. Gero Reinosara eta Reinosatik batailoi euskaldun danak Santoñara erretiratzeko agindua jaso gendun. Handik ingelesak atera eingo giñuztela eta. Barku ingelesak etorri zian, bai, baina goberno euskaldunak italianoekin egin zuen hitza. Eta italianoak Francok in zeuden. Ejerzito osoa hantxe harropatuak izan ginan. Danok barrura. Batzuk Santoñatik Laredora eramanak izan ginan. Kanpo konzentraziora. Han, tarari!, soldautzan bezela. ¡A formar! Han bazeon bat, nigana hurreatu eta ¿Usted también aquí, eh?, esan ziana. Bularrean Detente bala zeukan. ¡Detente, enemigo! ¡Que el Sagrado Corazón de Jesús está conmigo!, jartzen zun. Laredon italianoekin egon ginan.



Zer moduz jaten zenuten?

Jan? Egunion behin. Han hogeita lau orduan egon eta eguerdian, ¡A formar!. Bazkaltzera. Rantxo. Batzuek aluminiozko plateretan, baina guk potoetan. Potuari alanbria kertena bezela jarri eta bale. Lehenbiziko egunion, zer da eta, lentejak! Lentejak? Behin ere jan ez eta! Ogi txusko bat ere bai. Bigarren egunion ere, zer dek eta, lentejak! Kauen! Ez diat jango, ba! Ja



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa



Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

gure zumai zarra



Ezkerrean: Donatoren familiak idatzitako guttuna. Goian: Zentsura pasatzeko idatzitako guttuna. Bere arrebak Juanitak bakarrik ulertzen zuen idazkera. Behean: Ibiltzeko baimena. Herritik ateratzeko baharrezko zen. Zumaian ukatu eta Getarian atera zuen.



paretak eta itxiak kontserbatzia zan. Toki oso haundixa zan.

Zenbat denbora eduki zintuzten han lanean?

Cadizen dexente. Bi urte-edo. Gero kintak bezela ein eta lizentzia eman ziguten. Sol-dautzan bezela. Orduan bestiekin batera etxera bialdu giñuzten. 1935ko reenplazo-kuak ginan eta 1939ko otubrian askatuak izan ginan.

Cadizko beste konturik?

Bai. Han lanian ari ginala esan ziguten ea nahi gendun jaixetan mezetara jun. Guk baietz. Eta han juten ginan euskaldun danok formatuta. Mezetara joateagatik bi orduko permisua gendun kalia ibiltzeko. Guk euskeraz hitz egiten gendun eta jendiak, ¡Son rusos!, esaten zun. Katedralera juten ginan eta hango organista zauztarra zan. Gurekin hitz egin eta korua ein zun mezetan kantatzeko. Hasi baginan, hasi ginan. Jendia gero eta gehixo juten zan mezetara guri aitzera. Katedrala bete-bete eiten zan. Militarrak jakin zuten arte.

hiru egun jan gabe eta, zotz!, porratu ein beharko diagu. Porratu eta... hura gauza goxua zegona! Handik aurrera leatzen pareko! Kanpo konzentrazixuan txaleta zegon eta alberga zeukan gainian. Uso tokixa ere bazegon. Han beian ematen zuten rantxo. Laster asko ein nittun nik eskailerak handik jaxteko! Burnizko oihekin ein nittun leixotik irtetzeko. Gora ixo eta eskaileretatik behera atzera rantxoia jatera. Handik aurrera bi poto preparatuta rantxoia jateko!

Laredon lanik egiten al zenuten?

Ez. Han ez. Han ondo egon ginan. Italia-noekin. Egunero plaiara ateratzen giñuz-

ten. Bainura. Gazta ekartzen zuten, oso haundixa, eta haixen gazta ere jaten gendun. Handik Sevillara eta Sevillatik Cadizera. Trabajadorietara.

Zer lan egiten zenuten?

Goizian deklarazixua hartu eta arratsaldian, ¡A formar!, Batallón de Trabajadores-etan. Gu Trabajadores Especialistas ginan. Recuperación de Automóviles eta Fábrica de torpedos zan. Igeltseroen lana hango



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Hurrengo jaixan mezetara jun beharrian,
¡Cada uno a su puesto! Gehixo ez ziguten
utzi kalera irtetzen.

Zer arrazoi eman zuten?

Gorrixen aldeko propaganda eiten ari
ginala.

Beste konturik?

Beste batian, hantxe bertan, kumunak
lehertu ein zian. Baleares ontzixa bota
zuten egunian gainera. Barkua hondora-
tu zutela 20 minutura jakin gendun guk.
Hala, ba, ni kumunian sartzea besterik
ez nun ein, eta akordatu zat lapitza falta
detela. Lapitza bila kanpora irten nun,
eta dunba!, kriston esplosixua kumune-
tan! Pozo muerto edo horrelakua azpi-
xan zeukan, han gasak pilatu ingo zian
eta dana hankaz gora. Hiru prisionero
hil zian.

Bukatzeko. Hemen Zumaian zer
moduz?

Fitxatutakuak ondo ez. Ni 45ean ezkon-
du nintzan eta orduan herritik irtetzeko

*“Guk euskeraz hitz
egiten gendun eta
jendiak, ¡Son rusos!,
esaten zun”*

salbokonduktoa behar izaten zan.
Zumaiko aiuntamentuak ez zian eman
nahi izan eta Getaikoak ein zigun. Beste
batian, handik hamar urtera-edo, kon-
tejal bati errespetua faltatu nixola-eta,
hamar duroko multa eman zidaten.
Honelakuak asko Zumaixan.



BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9. Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

Kapaia
Aitona

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

jose manuel gonzalez aramendi kirol sendagilea

"kirola eta jarduera fisikoa bizitzako elementu bat bezala tratatzea falta da"

Jose Manuel Gonzalez Aramendi sendagileak "Bost urte. Bizitza osoa" izeneko liburua aurkeztu zuen orain aste batzuk Donostiako Koldo Mitxelena kultur gunean. Liburua Erein argitaletxeak atera du, Joxe Mari Kortaren Bidetik fundazioaren laguntzarekin.

ITZIAR GARATE

Gizakien pertsonalitatea eratzeko hain garrantzitsuak diren bost urteei buruz jarduten du idazleak lan hone-tan. Heziketa, kirolaren garrantzia, dopinga eta beste hainbat gai jorratzen ditu liburuan. Honi guztiari buruz hitz egin dugu berekin.

Nola uste duzue kirolak lagun dezakeela nerabezeroan? Zein da liburuaren gai nagusia?

Liburuak gai asko ukitzen ditu. Nerabezeroak teoriarik irauten dituen bost urte horiek oso garrantzitsuak dira. Badakigu gure artean gero eta droga gehiago dagoela, alkohol gehiegi edaten dela, gero eta gehiago erretzen dela, bai tabakoa, baita beste gauza batzuk ere. Ohitura txar

asko hartu ditugu eta horiek ekiditeko hainbat aukera eskaini nahi ditugu. Arrisku faktoreak identifikatzen ditugu faktore babesleekin batera, ikerketa batzuk eskaintzen ditugu, jarduera fisikoa inguruan prestatu diren programak, inkesta bat, aholkuak, helburuak plazaratzen ditugu.... Eztabaida polita eta beharrezkoa dela iruditzen zaigu, horregatik honelako proiektu bat.

Norentzat izan da liburu idatzia? Nerabeentzat soilik?

Ez dago nerabeentzat soilik idatzia, eskoletan erabiltzeko balio dezake, irakasleentzat, klub eta federazioentzat, gurasoentzat. Nahikoa liburu teknikoa da. Datu konkretuak ere ematen dira eta hori eztabaida



"Aukera gehiago eskaini beharko genituzke kirola eta jarduera fisikoa egiteko"

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

berriak sortzeko bidea izan daiteke. Kirola beharrezkoa dela kontzientziatzeko orduan gurasoak, eskolak, lagunak, norberak ere inplikatu behar du.

Hori nola lor daiteke?

Irakasle onak, programa onak eta aurrekontuak. Liburuan agertzen den moduan, inkesta bat egin diegu 1.151 ikasle eta irakasleri, galdeketa bat eman diegu 33 ikastetxetan. Ideia nagusia da gaur egunean gero eta jarduera fisiko gutxiago egiten dugula. Erantzunetatik ondoriozta daitekeen moduan, aukera gehiago eskaini beharko genituzke kirola eta jarduera fisikoa egiteko. Gauza erakargarri eta politak eskaintzen saiatu behar dugu. Denen artean pixkanaka egoerari buelta ematea lortu behar dugu. Etorkizun iluna aurkitu dezakegu bestela. Baina beste maila batzuetan ere egin daiteke lana. Politikariek, adibidez, kontzientziatu beharko lukete egoeraz eta guztiaren erdian hezkuntza jarri beharko lukete. Eskoletan ere kirolari merezi duen garrantzia eman behar zaio. Hezkuntza fisikoaren ikasgaia bigarren edo hirugarren mailakoa dela esan dezakegu. Literatura edo matematika ikasgaietan helburuak ez badituzu lortzen ez duzu aurrera egiten. Heziketa fisikoa ez badituzu helburuak lortzen ez



da ezer gertatzen. Gure helburuetako bat da kalitatezko beste hezkuntza forma bat bultzatzea, egoera hau hobetzeko. Gazteek ezin dituzte ikasketak bukatu osasun eta heziketa fisikoan ezjakinak izanda.

Prestakuntza osoa eta kontzientziazioa norberaren zaintzaren oinarri direla esaten duzue liburuan. Ongi

prestatzen al dugu gure burua, kontzientzia nahikoa ba al dugu jarduera fisiko eta kirolaren inguruan? Ongi ulertzen al dugu kirolaren garrantzia?

Ez, egia esan. Kirola beti dago emaitza eta sailkapenekin lotua. Egunkari bat ireki besterik ez dago: berri nagusiak emaitzak dira. Ez dituzu berri hezitzaile edo informatiboak ikusiko, hori ez da berria. Kirola gaur egun dirua edo posizioa irabazteko, lehiakortasun elementu bat bezala ikusten da. Gure ustez, kirola eta jarduera fisikoa bizitzako elementu bat bezala tratatzea falta da. Horregatik hasi behar da eskoletan ariketa fisikoa benetan irakasten eta hori osasunarekin eta portaera etikoarekin lotzen.

Ez al dira gehienetan kirola eta gorputzaren itxura elkarrekin lotzen?

Askok kirola honela ikusten dute, itxura fisikoarekin lotzen dute: ispi-luaren aurrean jarri edo hondartzara joan eta itxura polita emateko. Horretarako askotan substantzia dopanteak erabiltzen dira. Baina hori ezin da kirolarekin lotu.

Dopajearen kontua aipatu duzu. Kirolak zenbateraino urrundu eta zenbateraino hurbiltzen gaitu drogetatik?



ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



Itzurun
ATEAK
• Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
• Armairu enpotratuak
• Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
• Lanen zuzendaritza
Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Kirola ongi egitea faktore babeslea da. Goizeko 9etan jaiki behar baduzu surfa egitera joateko, aurreko gauean ez zara seiak arte kalean geratuko, adibidez. Baina kirolaria dopajearen sartzen bada, hori beste droga mota bat da. Drogaren munduan zaude berdin-berdin. Portaera bat edo beste hartzea da gakoa. Kasu batzuetan kirolak ez dakar gauza onik. Kirolari bat dopajearen sartzen bada ez dago asko egiterik. Hori ez da kirola, ez ezer. Etika lantzea garrantzitsua dela ikusten dugu, beraz. Lakra bat bihurtzen ari da. Guk dagoeneko dopajearen epidemiaz hitz egiten dugu liburuan. Gero eta zabalduagoa dagoen zerbait da. Buelta eman behar diogu egoerari denen artean.

Dopinga beti lehiaketako kirolarekin lotzen dugu. Horrela al da benetan?

Ez. Afizionatuak ere hurbiltzen dira mundu honetara. Datu bat ematearren: Amerikako Estatu Batuetan, 11 urterekin badaude haurrak positibo eman dutenak anabolizanteetan; Frantzia, berriz, 8 urteko haur bat izan da... Eta zein lehiaketatara aurkeztuko da haur hori? Gaur egunean asko ematen ari da genetikoaren dopajea. Giharretan bertan sartzen dute substantzia, badaude honetan dopatu diren kirolariak.



Liburuaren aurkezpen ekitaldia Koldo Mitxelena Kultur Gunean egin zen.

Kontrola ia ezinezkoa da, beraz. Analisiak oso garestiak dira. Frantzia, adibidez, milioi bat pertsona dopatzen dela uste dute, egin dituzten analisi eta kontrolen arabera. Hemen aldez, ez dugu inolako daturik. Hala ere, dopajea badago eta gure inguruan ikusten da. Txirrindulari oso onak ezagutzen ditut, oso emaitza onak lortu dituztenak, baina emaitza onak izan arren, irabazi ezin dutenak. Badaude, aldiz, hain onak ez direnak, baina hartu egiten dutenez... Hemen txirrindularitzan hitz egiten da dopajeaz, baina beste lurralde batzuetan korrikan edo saskibaloian ere izaten dira kasuak. Gutako bakoitzak zer egin

nahi duen jakitea oso garrantzitsua da. Neurri prebentiboak ezagutaraztea ere bada gure helburuetako bat. Arriskutsua dela eta kirolek urruntzen gaituen zerbait dela erakutsi behar diegu gure gazteei. Denen artean, berriz diot, egingo dugu zerbait. Gu, gure aldetik ari gara programa dezente bat prestatzen.

Zumaian nola ikusten duzu egoera? Ikusten da jendea korrika egiten edo bizikletan, baina badago etxean egiten duenik ere. Garbi jakiteko batuketa egin beharko litzateke: hainbeste arraunean, hainbeste futbolean, hainbeste piraguismoan... Honela jakingo genuke argi zein den egoera.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatuak • Aseguruak
Finanzen Administrazioa

txomin aguirre-4, beheak
20.750 zumaia (gipuzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

euskara sasoian egitasmoa. kirol elkarteak euskalduntzen

MAITANE IRIBAR. PLANIKER HIZKUNTZA ZERBITZUAK

Kirola eta euskara batzen dira Euskara Sasoian egitasmoan. Gure artean euskara gero eta gehiago zabaltzen ari da, baina zenbait eginkizunetarako oraindik gaztelania erabiltzeko joera dugu. Joera hori aldatu eta euskararen aldeko apustua egin dute Zumaia eta eskualdeko hainbat kirol elkarteak.

Urola Kostako Udal Elkarteak azterketa bat egin zuen gure eskualdeko kirol elkarteetan euskararen osasuna zer nolakoa zen jakiteko. Ondorio nagusia euskararen ezagutza nahiko altua zela izan zen, baina erabiltzerako garaian hutsuneak sumatu ziren, batez ere idazterako garaian.

Egoera hori aldatzeko erronka bere egin dute Udal Elkarteak eta eskualdeko hainbat kirol elkarteak. Horrela, Euskara Sasoian egitasmoa martxan jarri zen 2003ko abenduan, kirol elkarte eta Udal Elkartearen arteko lan-kidetza hitzarmena sinatu ondoren. Helburua eskualdeko kirol elkarteetan euskara gehiago erabiltzea da.

Une honetan Orio, Aia, Zarautz, Getaria eta Zumaiaiko 24 kirol elkarte ari dira egitasmoan parte hartzen, eta horietatik 7 zumaiaarrak dira. Udal Elkarteak kideak pozik agertu dira elkarteetan aldetik izandako erantzunarekin.

Izan ere, gure kirolariak urte osoan lanean aritu dira euskararen alde hartu zuten konpromisoa betetzeko. Horretarako, hoguei neurri baino gehiago hartu dituzte: idatziak euskaratu, euskalduntzeko baliabideen berri eman elkarteak kideen artean, euskaraz idazteko tresna lagungarrien inguruko informazioa zabaldu, hornitzaileei euskaraz jarduteko eskakizunak luzatu, egoitzako errotilazioak euskaratu, hizkuntz irizpideak hartu eta abar.

Udal elkarteak hainbat zerbitzu eskaini dizkie elkartei, besteak beste doako euskaratze zerbitzua, aholkularitza eta kirol elkarteetan eskuliburua.



Xabier Agirre, Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteak lehendakaria, Maitane Iribar eta Luis Mari Goikoetxea, Aita Mari Arraun Elkarteak lehendakaria.

Abenduan orain arte egindakoak aztertu eta aurrera begirako pausoak zehaztuko dira, datorren urtean indarberriturik lanean jarraitzeko, helburu guztiak bete arte.

Zumaiaitik, ondorengo elkarteek hartzen dute parte: Zumaiaiko Kirol Elkarteak, Inda Mendi Mendi Bazkuna, Anade Ehiza eta Arrantza elkarteak, Zumaiaiko Futbol Taldea, Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteak eta Aita Mari Arraun Elkarteak.

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneako menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

"Zumaiarak ikasi..."

eta gogoratu zaitezte beti
Gomez'tar Bishente'kin eta beraren
adibideai jaraitu

JOANITO DORRONSORO

Garai batean horrelaxe argitaratzen ziren bertso paperak. 12 bertsoko sorta dugu Gabonetako hau. Doinuari buruz esan behar da, Zumaian bertso hauek kantatu izan diren doinuetako bat, ez dagoela inon argitaratua, gure herrian gorde den tradizioa dela alegia. Erderazko hitz asko aurkituko dituzu bertan, obratu,

anparatu, entrañetan, esposo eta abar: garai batean ohikoa zen moduan. Argitaletzeko hutsegite bat badago 1. alean 4. lerroan: gaueko kantatu behar da eta ez gaurko. Ortografiako okerrak ere u gari daude, s-z nahastuaz adibidez. Baina okerrak oker, zumaiarrak ikasi izeneko bertso sorta xamur eta goxo honek merezi du herritarren estimazioa.

-1-

Ogeta'lau garrena
Degu Abenduan
Alkanzatu dezagun
Zer deseo genduan
Gaurko amabiyak
Jo duten orduan
Gure Salbatzalea
Jaio da munduan.

-3-

Txit egun ditxosua
Degu Eguari
Jesus zergaitikan'da
Gugana etofi
Guztiok bear degu
Debosio an jari
Graziak emateko
Jaiodan aur oni.

-5-

Jaungoikoa-gatikan
Degu mila grazi
Guretzako zerua
Nai-du irabazi
Lenengo redimitu
Gero nola bizi
Berak erakutziko
Gero nola bizi.

-2-

Ai zer konsuelua
Orain daukagun
Jaungoikoaren Semea
Etofi da lagun
Erakutzi'ko digu
Zer egin bear degun
Beraren alabantzak
Kantatu dezagun.

-4-

Belengo portalean
Estalpe batian
Jaioda Jesus umil
Askatxo batian
Astua ta iriya
Dauzka aldamenean
Arnazas berotzeko
Ostutzen danian.

-6-

Espiritu Santua
Obra sortu dana
Trinidad Santuko
Bigaren Persona
Amari-galdugabe
Dautzela azuna
Jaio da Maria'gandik
Gure Jesus Ona.



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



-7-

Espiritu Santuak
Berak'du obratu
Maria'ren entrañetan
Semea formatu
Kristalian argiya
Bezela pasatu
Eginda gero ere
Dontzela gelditu.

-8-

Jesus estimatzian
Izandu alkanzo
Munduta'ren partetik
Biardegu jazo
Jose eman ziola
Amari espozoz
Biyak egin ziraden
Auíaren espozoz.

-9-

Baita etorí dira
Iru Éregeak
Jakitea gatkan
Jesusen beñiak
Gaxpar eta Beltxor
Baldasara bestia
Nai dutela diote
Auíra ikustia.

-10-

Auíra adoratzerá
Iru érege emen
Ikusirik pobreza
Añitu ziraden
Éregaluak ere
Ekañi zituzten
Uñia, intzentsua
Míra iruga'ren

-11-

Karguan jañi dira
Jose ta Maria
Anparatzeko Seme
Estimagañia
Espiritu Santuak
Emanik argia
Oien kontzeziyua
Izan-tzan garbia.

-12-

Zorionian Jesus
Zu jaio zñaden
Bestela zeruetan
Sartzen ez gñaden
Gu salbatzeko gizon
Egin zñan emen
Glorian gozatzeko
Alkañekin. Amen.



Sekulako zozketa!!!

Karidadeko Bentaren "amore, amore" diskoaren bost ale zozketatuko ditugu galdera hau erantzuten dutenen artean:

Zer musika instrumentu jotzen zuen Joxe Azarolak?

Erantzunak utzi:

- Baleikeko lokalean, Juan Belmonte, 29 behea
- aldizkaria@baleike.com helbidean
- 943 861 545 telefonoko erantzungailuan

Urtarrileko zenbakian
argitaratuko ditugu emaitzak.

Animatu erantzutera!!



Hamar agendaren zozketako irabazleak:

- Arritokieta Urbieta Lasa
- J.A. Escudero Otaegi
- Iñaki Aldalur Oruesagasti
- Itziar Zearreta de la Fuente
- Bixente Esteibar Azkue



- Joxe Kruz Aizpurua Ormazuri
- Joxe Agustin Zumeaga Lapeira
- Itziar Unanue Garate
- Jexux Mari Esnal Izquierdo
- Ana Iraola Ormazabal

Zorionak!!



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Egunko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

ZINE FORUM

Abenduak 30, osteguna, 17:00etan eta 22:15ean

Shrek 2

Zuzendaria: Andrew Adamson, Kelly Asbury eta Conrad Vernon.

Nork ez du Shrek ezagutzen. Bai, bera, hainbat irribarre sortarazi zituen berde koloreko ogro maitagarri hura. Bere abenturak kontatzen zituen lehen pelikula harekin animazioaren mundua hankaz gora jarri ondoren, hemen datorkigu berriro ere bisitan. Konpainia onean dator, gainera. Egin beharrekoa, ordea, latza izango du, bere emaztearen gurasoak ezagutu beharko ditu eta.

Lehenbizikoa azken urteetako film arrakastatsuenetako bihurtu zuten oinarri berberak ditu Shrek 2 honek: haur eta helduek gogoko duten umorea aurkituko dugu, eta, noski, ipuinetako betiko pertsonaiak (Botadun katua, Printze liluragarria,

Pinotxo, Maitagarria, etab.) esperoko ez genituen egoera xeblebre batzuetan aurkituko dira.

2002an lehenengo aldiz marrazki-bizidunei Oscarra eman zitzairen. Shrek eta bere lagun Astoak jaso zuten saria. Azken urteotan argi geratu da zineman marrazki-bizidunak ez direla umeen gauza soilik. Hori ziurtatzeko, hor daude, besteak beste, Chihiro-ren bidaia, Evasión en la granja, Pesadilla antes de Navidad, Toy story 1eta Toy story 2 eta abar. Horiek guztiak, eta hemen jarri ez ditugun beste asko, benetan komenigarriak dira. Haurrak ikusi nahi duela aitzakiatzat hartu eta zoaz zinemara. Beno, haurrik gabe ere joan zaitezke...



B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

Y
I
N
Y
A
N
G
GAZTEEN ERROPA



ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

agenda

ERAKUSKETAK

Abenduaren 17tik urtarrilaren 2ra

ANTON EGIGUREN

Urtarrilaren 14etik 28ra

"Del AS al EURO" Erakusketa

numismatikoa, Ermuako

Castilla-La Mancha kultur

elkartaren eskutik.

IRTEERAK

TURISMO BULEGOTIK:

Urtarrilaren 29an: BILBO-ITSAS

MUSEOA (943 143 396)

DEIALDIAK

- ZUMAIKO VI. ESKAPARATE

LEHIAKETA

Eskaparateak prest egon beharko dute abenduaren 30era bitartean. Sari banaketa, 30ean 20.15ean Foronda kultur etxean.

GABONETAKO BERTSOPAPER-LEHIAKETA (oinarriak kultur etxean): Gaia "Etxebizitzak Zumaian". Epea: urtarrilaren 3a.

IKASTAROAK

HAURRENTZAT:

- Gabonetako Birziklapen Tailerra: abenduaren 27tik urtarrilaren 5era. 15.30etik 17.00era edo 17.15etik 18.45era. Izen ematea kultur etxean, abenduaren 20a bitartean.

- Haurren Plastika: Urtarrilaren 19tik ekainaren 16ra, asteazken eta ostegunetan. Izen ematea Forondan urtarrilaren 15a arte (943 861 056)

ABENDUA

18, larunbata, Gaztetxolan

SantoTomas ospakizunak
19, igandea: 17.00etan haur zinema saioa "Shin Chan."
21, asteartea: arratsaldez, Santo Tomas festa
24, ostirala

"Niño Jesusen eskian", Gabon Koruaren saioak kalez kale. Arratsaldez Gabon Abestien Lehia

Iluntze aldera, Gaztetxolan, Gabonetako-zinemaldia
18.30etan Jaiotza ikuskizuna Eusebio Gurrutxaga plazan.

25, larunbata 12.30ean Udai Musika Bandaren Eguberri kontzertua

26, igandea 11.30ean Aita Mari zelaian, futbol partidua: Zumaiko Beteranoak - Barakaldoko Beteranoak "Lasesarre Horibalzak"

12.00etan haur antzerkia, Hankatxo taldearen "Xomorroak"

28, asteartea 18.30ean AFARI-MERIENDA AMURIZAREKIN

Haur eta gaztetxoentzat Aita mari kafetegian

19.00etan Foronda kultur etxean, "Basajaunaren Ametsa" DVDaren aurkezpen eta proiektzioa.

30, osteguna: 17.00etan eta 22.15ean Aita Marin zineforum saioa: "Shrek 2"

URTARRILA

2, igandea 11etan hasita, Odieta pelotalekuan Gabonetako Parkea

19.00ak aldera, Erribera kalean BERTSO-POTEOA, trikilariekien.

4, asteartea 18.30ean Errege Magoentzat eskutitzen jasotzea
5, asteazkena 18.00etik aurrera, Errege Zamalkada

8, larunbata 22.00ean BERTSOLARI GAZTEEN SAIOA Aita Mari zinemari.

13, osteguna 22:15ean zine forum saioa "Diarios de motocicleta"



Inauterietako kartel lehiaketa

Inauterietarako kartel lehiaketa antolatu du Udaleko kultur batzordeak. Urtarrilaren 17an amaituko da lanak aurkezteko epea. Oinarriak Foronda kultur etxean dituzue.



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**

LORATÉGIA

Ezkontzak, Bqtaioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak



Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611


Sartaia



**Naturaren Gutiziak!
Zorionak!**

Oraindik, ez baduzu gustuko duzun gabonetako oparirik aurkitu, gük ideia bat proposatzen dizugu: kalitate goreneko **Artisau** eta **Bertako Produktuen** artean aukeraketa egiteko posibilitatea ematen dizugu orain.

Zure **otarra** prestatu, zure gustu eta aurrekontura egokituz. Bezero eta lagunei aho zabalik utzi lezaiezu, gutizi eta kalitatezko opari batekin.

Txomin Agirre Kalea, s/n - Local F
20750 - ZUMAIA (Gipuzkoa)

sartaia@sartaia.com
www.sartaia.com

Tels: 943 860 171 - 943 297 889
Fax: 943 860 172 - 943 297 890